

Giza eredu

Miguel Pelay Orozco

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 57-59.

Eskatu didate zerbait idatz dezadan Martin Ugaldere omenetan gaur argia ikusten duen aldizkari honetan biltzeko. Eta aldarrikapen bat egiten hasi behar dut, hain zuzen ere, idazle, pertsona gizatiar eta euskaldun bezala inor estimatzen badut, hori, andoaindar saiatu hori dela, orain 50 urte baino gehiago nire Caracas hartan ezagutu nuena. Gure herria astindu zuen tragedia hartako zauri asko sendatu ziren lurralde esker oneko hartan. Eta han eta orduan abiatu ginen gazte euskaldun batzuk idaztearen, amestearen eta gure herriarekin komunikazio loturak jartzen ahalegintzearen abentura konprometituan. Ez da ahaztu behar garai hartan gure herria Venezuela zela eta han sekula ez ginela izan ez exiliatu eta arrotz.

40eko hamarkada hastear zela Venezuelako kostara iritsi ziren ehundaka euskaldunen artean –gazteak gehienak– berehalakoan joan ziren zehazten afizioen eta joeren eremuak. Horrek bultzatuta sortu ziren euren artean oso ezberdinak ziren elkarteak, baina egoitza pirinear zaharrea oso errotuak zeudenak guztiak. Adibidez, abesteko afizioa zutenek abesbatza bat sortu zuten, Pizkunde izenekoa, sona handi samarra lortu zuena; kiroletarako zaletasuna zutenek futbol taldea antolatu zuten: Deportivo Vasco, Venezuelako lehenengo mailan aritu zena; pelotaren zaletuek partidu eta txapelketak jokatu zituzten –jokatuko ahal dira oraindik ere!– Euskal Etxeko parke zabalean kokatua zegoen frontoi bikainean.

Hasieran nioen literato talde hasberri horretako izen batzuk aipatuko ditut beste asko ahaztutzearen arriskuan –beti pentsatu izan du izen bat aipatuta bi ahaztutzen direla–: Iñaki Urreztia (Anamariren osaba), Estornes, Oñatibia, Elgezabal, Andoni Arozena, Sancho de Beurko, ia gu denok eta, Oñatibia zuzenduta, idazle baino gehiago irakurle ziren beste batzuk. Guztiok batera murrizagoa zen beste abesbatza bat sortu genuen, leku penintsular honetan otxote deritzaion moduko bat. Talde horri Ekin eman genion izena.

Urte batzuk pasatuta eta egitura kultural txiki horiek sendotuta zirelarik, Balconcitotik Trucorako izkineko (Caracasen ez dago edo ez zegoen kale izenik, izkinak ziren erreferentzia) Euskal Etxe zaharrera gazte talde bat iritsi zen; horien artetik bat bere literatur kalitateagatik bereiztu zen hasieratik. Martin Ugalde zen. Uste dut ni baino sei edo zazpi urte gutxiago zituela, belaunaldien kontzeptuarekin alderatuta –30 urtetan zegoen zehaztuta Ortegak 15era jeitsi zuen arte– maila bat adierazten zuena, ez kronologikoa, baizik eta heldutasun maila bat. Beste alde batetik, zaila zen oraindik ia nerabea zen gaztetxo batek Caracaseko Euskal Etxeak argitaratzen zuen *Euskadi* aldizkarian leku bat bilatzea. Garai hartan, Martin, Euskal Etxeko gazteen artean kultura eta literatura maite zuten guztiekin ibiltzen zen.

Mutil argala zen Martin orduan, euskaldunen sudur zorrotza zuena eta dirdira eta sendotasuna begiradan; oraindik ere gordetzen dituela uste dut. Baina urteak joan ahala

piska bat desitxuratzen goazenez eta jada denbora askotxo badenez kotxea kendu zidatenetik (mugitzeko autonomia murriztu zidan horrek) gutxi ikusten dugu elkar. Tartean behin mintzatzen gara telefonoz edota Bidasoadiko lagun batena jotzen dut Martinen berri eman diezadan.

Baina jarrai dezadan aurrera. Martin eredu bat izan da giza elementu bezala. Hasteko, zailtasunak zailtasun, beti lortu du bizimodua literaturatik ateratzea, gainontzekoak *second metier* izan dugunean, hau da, laguntza modukoa. Aipatu ditudan zailtasun horiek izan zituen arren, Martin profesional handia bihurtu zen. Estatu Batuetara joan zen, eta bertan, kazetaritzako ikasketa espezialdua, master bat, egin zuen, bere lantegiak emandako beka bati esker. Caracaserara itzulita, bere eragina berehala hasi ginen sentintzen gure gazteen artean. Euren kirol afizioa osotara albo batera utzi gabe ere –Martin bera futboleko aritzen zen Deportivo Vascon– gutxinakagutxinaka euskal kultura zirrargarriaren zale bihurtu zituen: mitologia, laino prehistorikoa, kobazuloak, sineskerak, erritoak, arkaismoa, hizkuntza misterioetsua eta abar.

Denborak aurrera egin ahala Martin Ugaldek *Eusko Gaztedi* aldizkaria sortu eta zuzendu zuen. Aldizkari hark zabalkunde handia lortu zuen, eta bertan, bere katekesiarekin konprometitu zituen gazte asko.

Ugaldek antolatzaile izateko dohai handiak zituen. Hasteko, iaioa zen gure artean hain ohikoak diren gaizki ulertu eta susmo txarrak baretzen. Ekimen ugari eraman zituen aurrera eta bere laguntzaile guztiak gogobete zituen.

Atzera eginez, esan genezake gure lagun honek arrakasta lortu zuela bokaziozkoa zuen letren eremuan. Sari sonatuak lortu zituen Venezuelan eta hemen, eta Creole Petroleum Corporation-ek sekulako tiradetan argitaratzen zuen *El Farol* aldizkariko zuzendari izatera heldu zen. Laburbilduz: Jerga modernoan "irabazle" esaten zaion horietakoa izan zen. Baina bere seme-alabekin katea etengo zen beldur zen. Bera egoera, inondik ere, inbidia emateko modukoa zen. Baina, bapatean, irtenbide bakarra izan zezakeen kezka sentitu zuen. Eta hala, gauetik goizera, hautsi egin zuen izerdiz lortu eta etorkizun ezinhobea eskaintzen zion Eldorado harekin, bere lur zaharrera itzultzeko. Baina hala eginda ere ez zitzaion deskantsua hartzeko garaia heldu. Arriskuak bere gain hartuta, *Alderdi* izeneko agerkari klandestinoa zuzendu zuen.

Amaitzera noa. Lagun maiteok, irakurle maiteok. Ez dut lerro hauen irakurketa bukatu nahi aldarrikatu gabe, idazle zahar bati geratzen zaion indar guztiz, Martini diodan laguntasun eta errespetua. Har ezazu, lagun zaharra, nire zorionik beronea, besarkada anaikor batekin. Bihotzez.

(Erredakzioan itzulia)